

Zerbitzu anitzetako hiru peoi kontratatzea - Esteribar

Honako hauek izango dira deialdi honen oinarriak:

OINARRIAK

1.- Arau orokorrak.

1.1 Deialdi honen xedea da langabeak kontratatzea, martxoaren 7ko 251/2018 Ebazpenaren 2024rako langabeak kontratatzeko programaren esparruan, interes orokorreko eta sozialeko lanak eta zerbitzuak egiteko, eta, Esteribarren kasuan, **ZERBITZU ANITZETAKO HIRU PEOI** kontratatzeko, Esteribarko Udaleko zerbitzu anitzetako brigadaren berezko lanetarako, sei hilabetez.

1.2. Ordainsariak D mailari dagozkion oinarrizkoak izango dira, bere lanaldiaren arabekoak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan eta indarra duen araudian zehaztutako moduan, eta Udalaren plantilla organikoan une bakoitzean ezartzen diren osagarriak jasoko ditu.

1.3. Bi hilabeteko probaldia izango da, eta bitarte horretan Udalak kontratua deuseztatu edo desegiten ahalko du, lortutako emaitzek ez badituzte betetzen Udalaren asmoak lanpostuarekin zerikusia duten jardueri dagokienez.

1.4. Hautaprobak gairidurik deialdi honetako lanposturako izendatzen den izangaia Gizarte Segurantzaren Sistema Orokorreko kide egingo da eta hartan inskribatuko.

1.5. Lanaldi osoko lanpostua izango da. Lanaldi mota eta ordutegia zerbitzuaren beharretara egokituko dira; organo eskudunek noiznahi aldatzen ahalko dute, zerbitzuaren beharren arabera.

1.6. Zehatz-mehatz azaldu ez arren, eginkizun hauek izango ditu lanpostuak, besteak beste:

–Zerbitzu anitz, instalazio eta obretako mantentze-lan orokorren lantaldeari dagozkion jardueren ingurukoak, eta horien funtzionamendu, kontserbazio eta mantentze egokiaren jarraipena.

–Igeltserotza-lanak oro har, eta udal-bulegoen, instalazioen eta biltegien mantentze-lanak, bai eta pintaketa-lanak ere.

–Udal makineria, erreminta eta lanabesak maneiitzea, mantentzea eta konpontzea.

–Hiri-altzariak instalatzea eta haiei dagozkien mantentze-lanak egitea: zutoinak, seinaleak, kale-argiak, bankuak, iturriak etab.

–Altzariak eta tresnak lekuz aldatzea eta jartzea. Festa eta ekitaldi publikoetan agertokiak, hesiak eta gainerako tresnak muntatu eta desmuntatzea.

–Ibilgailuak gidatzea eta makineria erabiltzea.

–Azpiegitura eta udal bulegoak mantentzeko eta konpontzeko lanak egitea: iturgintza, elektrizitatea, pintura, igeltserotza, soldadura, arotzeria, mekanika, garbiketa, zangak ireki eta ixtea.

–Beren mailaren barruan esleitzen zaizkien instalazio eta hobekuntza-ekintza berriak egitea, eta lanean erabiltzen dituzten ibilgailuen oinarrizko mantentze eta kontserbazio-lanak egitea.

–Udalaren eskumenekoak diren klorazio ekipamenduen eta herrietako edateko ur biltegien mantentze-lanen jarraipena egitea.

–Eskatzen zaion bide garbiketa egitea, Esteribarko Udalak dauzkan baliabideak erabiliz horretarako.

–Esteribarko Udalak eta bertako kontzejuek programatzen dituzten festetarako eta kultur ekitaldietarako prestakuntzan eta garbiketan laguntzea, baita Esteribarko Udalak laguntzen edo babesten dituen ekitaldietan ere.

–Udaleko beste zerbitzu batzuei laguntzea, hala eskatzen zaionean, eta kanpoko zerbitzuekin koordinatzea, langile espezializatuak behar direnean.

Halaber, zerbitzu anitzetako lanpostuaren eginkizun izango dira honako eginkizun orokorrak:

–Segurtasun eta higie-ne-arauek betetzea, egiten diren zeregin bakoitzerako egokiak diren babes-ekipamenduak behar bezala erabiliz.

–Udalaren azpiegitura, egoitza eta ekipamenduetan ikusten diren akats, matxura eta hausturen berri ematea arduradunari aldiro eta garaiz, eta zerbitzuen hobekuntza bultzatzea eta hartan laguntzea eta, hartara, hobekuntzarako lagungarri izan daitezkeen ekintza eta aldaketak proposatzea.

–Lanerako ezarritako arau, prozedura eta zehaztapen guztiak ezagutu eta aplikatzea.

–Ezarritako lan-programa betetzeak eta zerbitzuaren beharrek noizbehinka eta ordutegi-malgutasunari dagokionez planteatzen dituzten eskakizunetara egokitzea.

–Udalaren ordenantzak betetzen ote diren kontrolatu eta begiratzea, eta hirigintza eta ingurumen gaietan ikuskatzea, lizentzia eta obrei, eremu publikoaren okupazioari, isurketei eta abarri buruzko araudia jaso eta betetzen ote den begiratura.

–Bide eta eremu publikoak egoera onean ote dauden begiratzea, baita udal eraikinak ere, eta haien mantentze-lan eta/edo hobekuntzarako proposamenak egitea.

–Edozein eratako udal zerbitzuak ematea, eta hala Alkatezak nola organo delegatuek haren esku uzten duten beste edozein zeregin; betiere, bere eskumen, maila eta kategoriaren barnean.

2.- Parte-hartzaileek bete beharreko baldintzak

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako herritarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio.

Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko itunek ukitutako estatuetakoa herritarren ezkontideek ere parte har dezakete; betiere, zuzenbidez bereizita ez badaude. Orobat, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteta izatea eta nahitaezko erretirorako ezarritako adina ez gainditzea.

c) Eskola Graduatua, Lehen Mailako Lanbide Heziketa edo titulu baliokidea izatea, edo titulua lortzeko eskubideak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean ordaindu izanaren gordekina.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da.

d) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzuetatik bereizita ez izatea.

f) B motako gidabaimena edukitzea.

g) Kontratatzan den pertsonak langabe egon beharko du eta Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta, helbidea Esteribar, Erroibar, Ezkabarte eta Anue udalerrietan izanik.

Aurreko baldintza horiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola ulertzeaz gain, hautaketa-prozeduran eta kontratazio-aldian bete beharko dira.

3.- Eskabideak eta aurkezteko epea.

3.1. 3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak (jatorrizkoa eta kopia) Esteribarko Udalarri aurkeztu behar zaizkio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein baliabideren bitartez, Esteribarko Udaleko Erregistro Orokorrean (Orreaga etorbidea 13, PK). 31630, **2024ko otsailaren 27tik martxoaren 10era arte, biak barne**. Eskabide horiek deialdi honetan argitaratutako ereduari lotu beharko zaizkio.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

3.2. Eskabidearekin batera (deialdi honetan II. eranskin gisa argitaratutako ereduaren arabera) agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua.

b) Bigarren oinarriko c) atalean eskatutako titulazio akademikoaren jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua.

c) B motako gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.

d) Tasak ordaindu izanaren egiaztagiria.

e) Lehiaketaldian balioetsi behar diren merezimenduen jatorrizko ziurtagiriak edo kopia egiaztatuak, eskabidean fase horretarako alegatzen diren merezimenduak adierazita. Dokumentazio horren barruan, halakorik izanez gero, euskara-mailari dagokiona ere aurkeztuko da.

Aurreko agiriez gain, elbarritasuna duten izangaiek elbarritasuna eta ezgaitasun maila frogatzen dituen agiria aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana. Une horretan aurkezten ez duena ez da kontuan hartuko deialdietan. Halaber, ariketak egiteko denbora eta baliabide aldetik behar diren egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte. Kasu horretan, eskabidean adierazi beharko dute, eta, gainera, beste orri batean adierazi beharko dute nolako elbarritasuna duten eta eskatutako egokitzapenak.

4.- Tasak

Espedientea formalizatzeko eta azterketa eskubideengatik 4,50 euroko tasak ordaindu beharko dira honako kontuan: ES46/2100/5168/9021/0007/9976 8 Caixabank). Tasa ordaintzen ez bada, izangaia bazterturik geldituko da.

5.- Hautagaiak onartzea eta erreklamazioak aurkeztea

5.1. Eskabideak aurkezteko epea igarotakoan, Esteribarko Udaleko alkateak ebazpena emango du, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko. Ebazpen hori iragarki-oholean eta Udalaren webgunean argitaratuko da: www.esteribar.org.

Egun horretatik aurrera, eta hurrengo bi egun balioduneko epean, baztertutako zangaiek aukera izango dute erreklamazioak aurkeztu eta eskabidean egindako akatsak, halakorik bada, zuzentzeko.

5.2. Erreklamazioak egiteko epea amaituta eta, hala badagokio, horiek ebatzita, Udaleko alkateak ebazpena emango du onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda onartzeko. Zerrenda hori iragarki-taulan eta Udalaren web-orrian argitaratuko da, bai eta deialdian aurreikusitako hautaketa-proba teoriko-praktikoa egiteko eguna, ordua eta lekua ere.

5.3. Behin hautaprobak hasita, gainerako probak egiteko hurrengo deialdiak Udalaren iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko dira.

5.4. Izangaien kalifikazioa amaitu ondoren, Epaimahaia Udalaren iragarki-oholean eta webgunean lortutako puntuazioaren arabeko zerrenda argitaratuko du.

6.- Epaimahaia

6.1. Honako kide hauek osatuko dute epaimahaia, baina izangai onartuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean zehazten ahalko da behin betiko osaera:

- Lehendakaria: Guillermo Larrayoz Otazu, Esteribarko Udaleko alkatea.

Ordezkoa: Eskuordetzen duen zinegotzia.

- Lehenengo bokala: Raúl Pérez Pérez, Esteribarko Udaleko zinegotzia.

Ordezkoa: Eskuordetzen duen zinegotzia.

- Bigarren bokala: Edurne Miguel Zufiaurre, Cederna Garalur Elkarteko eskualde garapenerako agentea.

Ordezkoa: Edurne Crespo Montes, Esteribarko Udaleko langilea.

- Hirugarren bokala: Iñaki Muñoz Oroz, Esteribarko Udaleko Zerbitzu Anitzetako arduraduna.

Ordezkoa: Juan Carlos Gamba Barbarin, Esteribarko Udaleko zerbitzu anitzetako langilea.

- Bokal idazkaria: Julen Ros Indurain, Esteribarko Udaleko idazkaria.

Ordezkoa: Eskuordetzen duen pertsona.

6.2. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko eta Esteribarko Udaleko Zerbitzu Orokorrren Sailari jakinaraziko diote, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio-arrazoia gertatzen direnean.

Era berean, izangaiek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte inguruabar horiek gertatzen direnean.

Legez ezarritako abstentzio- eta errekusazio-kausak aplikatuz aldaketaren bat gertatuz gero Epaimahaiaren osaketan, Udalaren iragarki-oholean eta web orrian argitaratuko da.

6.3. Hautaprobak hasi baino lehen eratuko da epaimahaia.

Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bertan ez badago.

Era berean, epaimahaia legez eratzeko, mahaiburua eta idazkaria egon beharko dira.

6.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatu eta aplikatzeari buruz sor daitezkeen arazo guztiak. Berdinketa egonez gero, lehendakariak kalitateko botoa erabili ahal izanen du.

7.- Hautapen prozesuaren nondik norakoak.

7.1.- Lehiaketaldia. Gehienez 40 puntu.

-Lehiaketaldian, izangaiek adierazitako merezimenduak kalifikatuko ditu epaimahaiak. Gehienez, 40 puntu emanen dira, honela banatuta:

PRESTAKUNTZA: (gehienez 15 puntu).

- Titulazio arautua:

+ Erdi maila edo LH I: elektrizitatea, iturgintza, lorezaintza, eraikinen mantenimendua edo igeltserotza. **4 puntu.**

+ Goi-mailako Gradua, LH II edo ingeniaritza: elektrizitatea, iturgintza, lorezaintza, eraikinen mantenimendua edo igeltserotza. **5 puntu.**

+ Erdi maila edo LH I lanpostuarekin zerikusia duten beste espezialitate batzuetan, hala nola soldaduran, mantentze-lanetan, mekatronikan, zurgintzan, etab. **3 puntu.**

+ Goi-mailako gradua, LH II edo ingeniaritza lanpostuarekin zerikusia duten beste espezialitate batzuetan, hala nola: soldadura, mantentze-lanak, mekatronika, arotzeria, etab. **4 puntu.**

+ Profesionaltasun-ziurtagiria: elektrizitatea, iturgintza, lorezaintza, eraikinen mantentze-lanak edo igeltserotza. **3 puntu.**

+ Profesionaltasun-ziurtagiria, lanpostuarekin lotutako beste espezialitate batzuetan, hala nola soldaduran, mantentze-lanetan, mekatronikan, zurgintzan eta abarretan. **2 puntu.**

- Lanpostuarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikastaroak edo prestakuntza osagarria: elektrizitatea, iturgintza, lorezaintza, igeltserotza, erremintak eta makineria erabiltzea, soldadura, mantenimendua, mekatronika, arotzeria, LAP, etab. 60 orduko, **0,5 puntu** (ikastaroak 30 orduko iraupena izan behar du gutxienez), **gehienez 5 puntu.**

ESPERIENTZIA: (gehienez 15 puntu).

- Administrazio Publikoan zein enpresa pribatuan zerbitzu anitzetako enplegatu gisa edo lorezaintza, eraikinen mantenimendua, elektrizitate, iturgintza, igeltserotza edo eraikuntza gremioekin zuzenean lotutako lanpostuetan lan egindako urte bakoitzeko. **3 puntu, gehienera 12 puntu.**

- Lanpostuarekin zerikusia duten beste arlo batzuetan (pintura, arotzeria, soldadura, galdaragintza, mekanika eta abar) lan egindako urte bakoitzeko. **1,5 puntu, gehienez 6.**

EUSKARA: (gehienez 10 puntu).

- Ofizialki aitortutako titulazio edo ziurtagiri bidez C1 ahozko maila dutela egiaztatzen duten izangaiek: **10 puntu.**

- Ofizialki onartutako titulazio edo ziurtagiri bidez B2 ahozko maila dutela egiaztatzen duten izangaiek: **8 puntu.**

- Ofizialki aitortutako titulazio edo ziurtagiri bidez B1 ahozko maila dutela egiaztatzen duten izangaiek: **6 puntu.**

- Ofizialki onartutako titulazio edo ziurtagiri bidez A2 ahozko maila dutela egiaztatzen duten izangaiek: **4 puntu.**

- A1 ahozko maila dutela ofizialki aitortutako titulazio edo ziurtagiri bidez egiaztatzen duten izangaiek: **2 puntu.**

Deialdian parte hartzeko eskabidean hala eskatzen dutenei ahozko euskara-maila zehaztuko duen proba bat egiteko aukera eskainiko zaie.

7.2. Oposizioaldia. Gehienez 60 puntu.

Oposizioaldia honako hau izango da:

7.2.1. Proba teorikoa.

Deialdi honen I. eranskinean azaltzen den gai-zerrendako gaiet buruz, idatziz eta gehienez berrogeita bost minutuko epean, erantzun beharko zaie, gehienez ere, 25 galderari. Erantzun bakoitzak lau erantzun ahal izanen ditu, eta bakarra izanen da baliozkoa.

Zati hau gehienez ere 25 punturekin baloratuko da eta errakuntzak galdera bakoitzaren balioaren 0,25ekin zigortuko dira erantzun oker bakoitzeko.

Proba egiteko ezin izango da inolako testurik kontsultatu, ezta kalkulagailurik edo bestelako materialik erabili ere, eta izangaiek tinta urdineko edo beltzeko boligrafo bat baino ez dute izanen.

Epaimahaiak Udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko ditu izangaiek lortutako kalifikazioak, hurrengo atalean garatutako elkarrizketa egiteko data eta lekua adieraziz.

7.2.2. Proba praktikoa eta elkarrizketa.

Proba teorikoan sei puntuazio onenak lortzen dituzten pertsonak proba praktikoa bat egingo dute, I. eranskinean adierazitako gai-zerrendan oinarrituta eta gehienez 25 punturekin baloratuta. Egun berean elkarrizketa bat egingen dute lanpostuarekin zerikusia duten gaitasunei buruz. Elkarrizketa hori gehienez ere 10 punturekin baloratuko da.

7.3. Lehiaketaldiko eta oposizioaldiko puntuazioa ehun puntukoa izanen da gehienez.

7.4. Praktika-proba egiteko eta elkarrizketarako deialdi bakarra egingen da. Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala, pasaportearen edo gidabaimena aldean dutela agertu beharko dute. Beren nortasuna frogatzen ez dutenak edo agertzen ez direnak bazterturik geldituko dira.

7.5. Hautaprobak egiten diren bitartean, ezgaitasun aitortua dutenentzat eta eskabidean hala eskatu dutenentzat bidezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak ezarriko dira.

7.6. Parte hartzen dutenen artean gerta daitezkeen berdinketak epaimahaiak ebartziko ditu, oposizioaldian lortutako nota altuenari jarraikiz. Berdinketak jarraituz gero, epaimahaiak zozketa bakar bat egingen du.

8.- Probak gainditu dituztenen zerrenda, puntuazioaren arabera

8.1. Izangaien zerrenda, puntuazioaren arabera.

Azterketak kalifikatu ondoren, epaimahaiak Esteribarko Udaleko iragarki-oholean eta udalaren webgunean argitaratuko du lortutako guztizko puntuazioaren arabera pertsonen zerrenda, eta alkateari bidaliko dio, onar dezan, hautaketa-prozesuko espediente osoarekin batera.

Zerrenda honen baitan, 6 hilabeteko kontratazio-aldirako aldi baterako kontratazioen zerrenda ere osatuko da.

8.2. Proposatutako izangaiek, hau da, hiru puntuaziorik onenak dituzten izangaiek, onartutako zerrenda argitaratu eta bost egun naturaleko epean, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Zinpeko aitorpena, eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez dagoela eta inongo administrazio publikoren zerbitzuetik berezia ez dela izan dioena.

b) Osasun ziurtagiria, karguaren eginkizunak normaltasunez betetzea eragotziko liokeen gaixotasunik edo eragozpen fisikorik ez duela egiaztatzen duena. Elbarritasuna alegatuz gero, haren egiaztargiria aurkeztu beharko du, deialdi honetako lanpostuarekin bateragarria dela dioena, balorazio eta orientazio talde eskudunek emana.

Dokumentazio hori aurkeztutakoan, kontratua formalizatuko da.

Proposatutako izangairen batek agiri horiek aurkezten ez baditu, edo lanposturako gai ez bada, ezin izango da izendatu, eta baja horiek gainditu dutenen zerrendan hurrengo dagoen izangaiarekin beteko dira, hark arestian aipatutako agiriak aurkeztu ondoren.

9.- Errekurtsoak.

Deialdi honen, bere oinarrien eta hori aplikatzeko egintzen aurka errekurtso hauetako bat aurkez daiteke, aukeran:

a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

Epaimahai kalifikatzailearen egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio deialdia egin duen udal organoari, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo hilabetearen barruan.

Esteribarren, 2024ko otsailaren 26an.-Alkatea, Guillermo Larrayoz Otazu.

- 1. gaia.-** Aritmetikako eta geometriako oinarrizko arauak.
- 2. gaia.-** Idazteko eta ortografiarako oinarrizko arauak.
- 3. gaia.-** Laneko segurtasun, higiene eta oztopo arkitektonikoen gaineko oinarrizko ezagutzak.
- 4. gaia.-** Soldadurari eta doitze-makinen oinarrizko erabilerari buruzko ezagutzak.
- 5. gaia.-** Igeltserotza-kontzeptu orokorrak. Erremintak. Materialak. Zolaketa eta alikatatzea. Enkofratuak eta hormen jasotzea.
- 6. gaia.-** Eraikinetako banaketa-koadroak, potentzia kontrolatzeko etengailua, magnetotermikoak eta diferentzialak.
- 7. gaia.-** Oinarrizko argi-zirkuituak: etengailuak, kommutadoreak, entxufe-oinak, lanparak, pitzarazgailuak eta erreaktantziak.
- 8. gaia.-** Iturgintzako eta berokuntzako instalazioen mantentze-lanak: tresna sanitarioak, txorrotak, zisternak, sifoiak, berokuntza zirkuituak, zirkuituak betetzea eta purgatzea, galdaragelak eta haien osagai bereziak.
- 9. gaia.-** Eskema elektrikoaren eta iturgintzakoaren ezagutza.
- 10. gaia.-** Makineria eta ibilgailuen maneia, mantenimendua eta konponketa.
- 11. gaia.-** Eraikinen eta hiri-altzarien mantenimendua. Pintura.
- 12. gaia.-** Esteribarko udalerria: kontzejuen eta herriguneeen izena eta kokapena eta populazio datuak.
- 13. gaia.-** Esteribarko geografiaren ezagutza.
- 14. gaia.-** Oinarrizko ezagutza kloraziorako gailuen mantentze-lanari eta haiek maneiatzeari buruz eta edateko ur hornidurako sistemei buruz.